

FITXA: 215 - ARABA - Onestea landako askotariko zerbitzuak eta herrita-rrentzako bestelako zerbitzuak ezarri, zabaldu eta hobetzeko dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko dirulaguntzen deialdia.

Nori zuzendua: Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak eta pertsona fisiko edo juridiko pribatuak izan daitezke dirulaguntza hauen onuradun. Inola ere ez dira diruz lagunduko 20.000 biztanletik gorako udalerrietako jarduketak.

Deialdia: ALHAO - Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala **Deialdiaren data:** 2026/03/20

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/landa-eremuan-askotariko-zerbitzuak>.

Erreferentziazko araudia: Foru Agindua 156/2026, martxoaren 13koa. - https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/034/2026_034_00782_E.pdf

Eragin eremuak: Udal azpiegiturak

Zenbatekoa: 98.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/03/20

Aurkezteko azken eguna:: 2026/04/20

Aurrerakina: Ez da zehaztu.

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Jarduera-mota bakoitzerako aldakorra. **Gutxieneko zenbatekoa:** Ez da zehaztu.

Laburpena

Landa eremuan merkataritzak betetzen duen funtzio soziala sustatu nahi da, landako askotariko zerbitzu horiek ezartzen lagunduz.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- Landako askotariko zerbitzu deritzen saltegiak; funtsean, merkataritza eta jatetxe jarduerak.
- Landa biztanleentzako gizarte, enpresa edo lanbide zerbitzuetako beste gabezia batzuk betetzeko zerbitzuak. Halakoetan, etxera eramateko/joateko zerbitzua diruz lagundu ahal izango da, moduluen bidez, baldin eta negozioa 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera jarri bada abian.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira, soilik, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak eta behar-beharrezkoak direnak; bai eta zeharkako zergak ere, onuradunak ordaindu behar baditu eta ezin badizkio hirugarrenei ordainarazi.

Gastuetarako aldi hautagarria

Frogagiriak aurkezteko azken eguna 2026ko urriaren 30a izango da.